




2018ko URRIA **EUSKO BAROMETROA**
Euskal iritzi publikoari
buruzko aldizkako azterketa



2018ko **URRIA** **BAROMETROA**

Euskal iritzi publikoari buruzko
aldizkako azterketa



Fundación
IBERDROLA



AURKEZPENA

EUSKOBAROMETRO (www.ehu.es/euskobarometro) izeneko ikertaldeak UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Sailaren barnean dihardu, Francisco José Llera Ramo irakaslearen zuzendaritzapean. Irakasle eta ikerlari talde egonkor batek osatzen du: Arantxa Elizondo, Jonatan García, Patxi Juaristi, Rafael Leonisio, José M. Mata, Juntxo Mokoroa, Carmelo Moreno, Ainhoa Novo, Alberto de la Peña, Sergio Pérez eta Alfredo Retortillo. Taldekide ere izan dira edo taldean trebatu dira: Eider Alkorta, Juan Luis Arriaga, Yosune Iraola, Eva Martínez, Pablo San Martín, Beatriz Santisteban eta Raquel Sanz.

Ikertaldearen proiektua 1995. urtean jarri zen martxan, 70eko hamarkadaz geroztik bildutako ikerketa esperientzia handia baliatuta. Helburu nagusia euskaldunen portaera politikoa eta iritzi publikoa aztertzea zen, eta horri erakundeen eta politika publikoen analisiari eta bilakaerari lotutako beste helburu batzuk batu zaizkio. Zentzu horretan, **EUSKOBAROMETRO TALDEA**ren jarduera oso emankorra izan da azken urteotan, eta horren erakusle dira bere iritzi barometroaren inkestan segidak izandako oihartzuna eta azterketa ugariak. Gaur egun, Euskobarometro Taldea kalitate zientifikoa aitortua daukan talde bat dela esan dezakegu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate sisteman ebaluatutako 200 ikertaldearen rankingeko lehen postuetan dago, eta 2013an lehen lekuari eutsi zion Gizarte Zientzietako ikertaldearen artean, bost urteren ondoren: www.ehu.es/euskobarometro.

- 1) Euskobarometro Taldearen lehen emaitza praktikoa datu banku oparo bat sortzea izan da, sei hilabetean behin eginiko Euskobarometroa izeneko inkestetan eskuratu-tako datuak oinarri hartuta. Hemendik gutxira, bildu eta sistematizatutako milioika datu horiek guztiak on-line kontsultatu eta tratatu ahal izango dira; oraingoz, ordea, horien aukeraketa esanguratsu bat eskain dezakegu. Datu horiek, 50.000 euskal herritarrek baino gehiagok eskuzabaltasunez emandako erantzunen bidez jasotakoak, kontsulta daitezke gure webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN SERIE KRONOLOGIKOAK** atalean.
- 2) Euskobarometro Taldeak berak Euskobarometroaren udaberriko eta udazkeneko inkestan emaitza nagusiak ematen ditu aditzera hedabideetan eta iritzi publikoaren aurrean. Emaitzetan, datu politikoak, sozialak eta ekonomikoak ematen ditu. Datu horiek guztiak aipatutako webgunearen **EUSKOBAROMETROAREN AURKEZPENAK** atalean kontsulta daitezke.
- 3) Euskobarometro Taldeak Euskadirako hauteskunde estimazioak aurreratu ohi ditu, hauteskunde garaian gauden aldiro. Euskal hauteskunde autonomikoen inguruan eginiko aurreikuspen horiek **EUSKOBAROMETROAREN HAUTESKUNDE ESTIMAZIOAK** atalean kontsulta daitezke, webgune berean.
- 4) Era berean, Euskobarometro Taldeak beste era bateko ikerketa eta aholkularitza lanak egiten ditu aldiaren behin, analisi empirikoen, erakunde ebaluazioaren eta politika publikoaren arloan, gehienbat. Jarduera horiek ikus daitezke ere **EUSKOBAROMETRO TALDEAREN LANEN ZERRENDA** atalean, webgune berean.

- 5) Euskobarometro taldeak eginiko lanen artean, bereziki aipatu behar dira generoari eta gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko politikai buruzko ikerketak. Horren harira, taldeko irakasleak eta ikertzaileak hainbat ikerketa eta aholkularitza lan egiten ari dira erakundeekin batera, genero ikuspegia jardun publikoan txertatzeko eta sexuen arteko bazterkeriarekin amaitzeko aurrerapausoak emate aldera. Jarduera horiek guztiak ere webgune berean daude ikusgai, **GENERO IKERKETAK** atalean.
- 6) Ia hasieratik, **EUSKOBAROMETROAK** arreta berezia eskainiko dio Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi publikoaren ezagutzari, eta aitzindaria izan da arlo horretan. Hala, 1996. urteaz geroztik, **UPV/EHUREN gizarte hedapenari buruzko ikerketa** argitaratu dugu urtero, eta lanaren azken edizioa gure webgunean kontsulta daiteke, errektoreak aldeaz aurretik baimena emanda.
- 7) Euskobarometro Taldeak, 2000. urtean, Informazioaren Gizartearen Euskadiko Behatokia (IGEB) izeneko zerbitzu berria sortu zuen, informazioaren teknologia berriek euskal komunitatean duten eragina neurtzeko. Emaitzak kontsulta daitezke, halaber, webgune berean, **INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EUSKADIKO BEHATOKIA (IGEB)** estekan.
- 8) Europar Batasuna indarrean sartu, erakundeak erreformatu, eta Europar Batasuna handitu denez eta nazioarteko egoera ere aldatu denez, gai horiekiko interesa areagotu dela ondorioztatu dugu. Horren harira, **EUROPAKO INTEGRAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO GIZARTEAREN EUSKAL BEHATOKIA (ENEB)** sortzeko beharra ikusi genuen. Behatoki horri buruzko informazioa ere orri horretan sartu genuen, 2001eko udazkeneko barometroaren ondoren.
- 9) 2001. urteaz geroztik, **EUSKOBAROMETROAK**, Bartzelonako, Granadako eta Santiagoko unibertsitate autonomoen (ICPS) eskualdeetako unibertsitate barometroekin batera, abian du **POLITIKA AUTONOMIKOAREN BEHATOKI (PAB)** berria, non beren galdetegien zati komunak partekatzen, alderatzen eta aldian behin zabaltzen diren. PABek webgune (www.opa151.com) eguneratu bat dauka, eta bertan eskualdeetako barometroetara sartzeko estekak ematen dira.
- 10) Horrez gain, azken urteetan **EUSKOBAROMETRO TALDEAK** ikerketa nazionalen lefro berri bat ireki du, beste erakunde batzuekin lankidetzan. Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziarekin (ANECA) izandako lankidetzaren emaitza gisa, **Espainiarrak eta Unibertsitatea** izeneko azterketa aitzindaria egin zen. **Espainiako unibertsitate sistemaren irudi publikoari buruzko lehen inkesta nazionala** aipatutako erakundeak argitaratu zuen, 2004an, eta gure webgunean kontsulta daiteke. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin (TBF) eta Ikerketa Soziologikoen Zentroarekin lankidetzan egindako lanaren emaitza izan zen, halaber, **Espainiarrak eta terrorismoaren biktimak** izeneko azterlan aitzindaria. **Estatuko lehen inkesta** hura CISek argitaratu zuen, 2004an. Terrorismoaren Biktimen Fundazioarekin lankidetzan ere, **“Percepción ciudadana sobre el terrorismo y sus víctimas”** izeneko **estatu mailako II. inkesta** argitaratu zen, 2005ean, eta izenburu bereko **III., IV. eta V. inkestak** 2006an, 2007an eta 2008an argitaratu ziren, hurrenez hurren. Lan horiek guztiak gure webgunean kontsulta daitezke.

*UPV/EHUko Politika Zientzia Saileko
EUSKOBAROMETRO ikertaldeak, ondoren bildu
diren iruzkin eta datuen bidez, 2018ko urrian eginiko
udazkeneko inkestaren emaitza nagusiak aurkezten
ditu.*

*Informazio hau gure webgunean kontsultatu eta
sakondu daiteke:*

www.ehu.eus/euskobarometro

Aurkibidea

I.	FITXA TEKNIKOA	6
II.	EGOERA PERTSONALA, KEZKAK, GIZARTE ETA EKONOMIA GIROA, DEMOKRAZIAREN ONDOEZA ETA KONSTITUZIARI EMANDAKO BABESA	7
III.	GOBERNU ETA POLITIKA GIROA ETA HORREN EBALUAZIOA, ALDERDIEN IBILBIDEA ETA LIDERGO POLITIKOA	19
IV.	ABERTZALETASUN SENTIMENDUA ETA IDENTITATEA, ESTATU EREDUA, AUTOGOBERNUA ETA HAREN ERREFORMA, BABESA ESTATUTUARI ETA INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK	31
V.	PRESOEN ETORKIZUNAREKIKO ETA TERRORISMOAREN AMAIERAREKIKO JARRERA	49

I. go Atala

2018ko URRIKO EUSKOBAROMETROAREN FITXA TEKNIKOA

Egilea: UPV/EHUKo Politika Zientzia Saileko EUSKOBAROMETRO taldea, **Francisco J. Llera Ramo** irakaslea zuzendari duena. **José M. Mata eta Carmelo Moreno** irakasleak aritu dira taldean, **Rafael Leonisio**ren laguntza teknikoaz.

Landa lana: Banakako elkarrizketak, **CPS**ren landa sareak galdetegi egituratu batez etxez etxe egindakoak, 2018ko urriaren 15etik azaroaren 9ra.

Unibertsoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 18 urteko eta hortik goragoko biztanleria.

Laginaren tamaina: 1.200 elkarrizketa etxez etxe egindako 400eko lagin probintzialetan.

Laginaren diseinua: Etapa anitzekoa eta auto-haztatua, **EUSTAT**en metodologiaren arabera, 34 udalerritako (7 Araban, 12 Bizkaian eta 15 Gipuzkoan) 60 errolda sekziotan egin zen, eta banakoak ausaz hautatu ziren, adin eta sexu kuoten arabera.

Laginaren errorea: % 95eko konfiantza mailarako eta $p = q = 0,5$ biztanleria aldakortasun gorenekotzat hartuta, laginaren errorea lagin osorako $\pm \% 2,82$ da. Azpilagin probintzial bakoitzerako eta probabilitate baldintza berberetan, erroreak, hurrenez hurren, $\pm \% 4,89$ dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuetarako.

Igotzaileen kalkulua: Metodo interaktibo baten bidez, laginak probintzia, sexu, adin eta heziketa mailaren arabera egokitu dira, **EUSTAT**ek 2011ko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren "Errolda sekzioen tipologietan" (1.721 sekzioetako 9 tipologia) oinarrituta egindako zozketatik abiatuta. Horrez gain, sekzioak aukeratzeko 2012ko Etxebizitzen Direktoria erabili da, urte bereko Biztanleria Erregistroaren eguneratzearekin batera, 2012ko sekzio banaketarekin.

II. Atala

Gehiengoak positiboki baloratzen du bere egoera pertsonala, 2018an, eta krisiaren aurreko gogo aldartea finkatzen ari da.

Ezkortasuna iraunkorra da, batik bat Espainiako ekonomiarekiko; haatik, hobea da euskal ekonomiaren egoeraren gaineko pertzepzioaren bilakaera.

Egonkortu da ekonomia krisiaren eraginak hautematen dituen gehiengo nagusia.

Enpleguak atzera egiten jarraitzen du lehen kezka gisa, eta desberdintasunek eta ongizateak bigarren lekuari eusten diote.

Hirugarren hiruherkoz jarraian atzera egin du politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduak, eta haren izaera asimetrikoa berragertu da.

Demokraziak gogobetetzen ez duen gehiengo arindu da, eta bat datoz horretan hautesleria guztiak.

Espainiako Konstituzioaren babesa berreskuratu da, 1978an lortutakoa gaindituta.

GEHIENGOARENTZAT 2018. URTEA ONA IZAN DA MAILA PERTSONALEAN

Lau euskaldunetarik hiruk (% 73,3) uste dute 2018. urtea ona izan dela arlo pertsonalean, eta gainerakoek esperientzia negatiboren bat aipatu (% 10,5) edo jarrera eszeptikoa erakutsi dute (% 16,3). Azken hiru urteetan, egonkortu egin dira 2015. urte amaieran egiaztatu zen baikortasunaren berreskurapen argia (+20 puntu) eta ezkortasunaren atzerakada korrelatiboa (-14 puntu). Orduan esan genuen bezala, bilakaera honek erakusten digu pixkanaka ekonomia krisiaren aurreko gogo aldartea berreskuratzen ari dela --- ikus 1. Grafikoa ---.

EZKORTASUNA IRAUNKORRA DA, BATIK BAT ESPAINIAKO EKONOMIAREKIKO; HAATIK, HOBEA DA EUSKAL EKONOMIAREN EGOERAREN GAINKO PERTZEPZIOAREN BILAKAERA

Era berean, azken sei hileko honetan atzera egiten jarraitzen du, hiru urteren ondoren (-34 puntu), Espainiako egoera ekonomikoaren inguruko gehiengoaren ezkortasunak (% 53,2); dena dela, baikorren multzoak ez du gora egin (% 4,9); igo da, ordea, apur bat eszeptikoen multzoa (% 39,9). Ostera, euskal ekonomiaren bilakaerari dagokionez, duela zazpi sei hileko hasi zen hobekuntzari jarraiki, baikorrak (% 32,3) ezkorrak (% 17,8) baino gehiago dira hiru sei hilekoz jarraian, eszeptizismoak nagusi izaten jarraitzen badu ere (% 49,1) --- ikus 2. Grafikoa ---.

EGONKORTU DA EKONOMIA KRISIAREN ERAGINAK HAUTEMATEN DITUEN GEHIENGO NAGUSIA

Hamarretik zortzi inguruk oraindik (% 83) krisiaren eragina jasaten ari direla edo jasan dutela diote, eta bostetik bi inguru (% 40,6) intentsitate handiagoz jasaten ari dira, edo jasan dute; hortaz, inpaktu adierazle hau bere horretan mantendu da argi eta garbi sei hileko honetan --- ikus 3. grafikoa ---.

ENPLEGUAK ATZERA EGITEN JARRAITZEN DU LEHEN KEZKA GISA, ETA DESBERDINTASUNEK ETA ONGIZATEAK BIGARREN LEKUARI EUSTEN DIOTE

Lanak sortzen duen kezkak (% 48) lehen postuan jarraitzen badu ere, sei hilekoan atzera egin du berriro (-22 puntu) hirugarren urtez jarraian. Askoz beherago dago "gizarte desberdintasunak eta ongizatea" (% 19) epigrafean bildutako arazoaren multzoa; horien ondoren egoera politikoa dugu (% 10) eta, oro har, arazo ekonomikoak (% 9). Dezente atzerago kokatzen dira immigrazioa (% 3) eta etxebizitza (% 3) eta % 1ean kokatu arte egin dute atzera indarkeriak, bakeak, presoek edo euskal arazoak. Oso atzean geratzen dira ere ingurumena eta beste gai batzuk --- ikus 4. grafikoa ---.

HIRUGARREN HIRUHILEKOZ JARRAIAN ATZERA EGIN DU POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUN SENTIMENDUAK, ETA HAREN IZAERA ASIMETRIKOA BERRAGERTU DA

Azken lau urteotan adierazle honek izan dituen aldaketa positiboen ondoren, nahiz eta gorabehera txiki batzuk izan, azken urtean eta hirugarren seihilekoz jarraian atzera egin du (-19,1 puntu) edonorekin politikaz hitz egiteko askatasun sentimenduak, eta gehiengoa izateari utzi dio (% 38,9). Era berean, sendotu egin da pertsona batzuekin bakarrik hitz egin dezaketela diotenen gutxiengoa (% 40,8) eta inorekin hitz egiteko gai ez direla diotenena (% 19,7); hala, haren lehengo eredu asimetriakoa berpiztu da sektore ideologiko edo identitarioen artean --- ikus 5. Grafikoa ---.


DEMOKRAZIAK GOGOBETETZEN EZ DUEN GEHIENGOA ARINDU DA, ETA BAT DATOZ HORRETAN HAUTESLERIA GUZTIAK

Atzera egin du lehenengoz (-6 puntu) gure sistema demokratikoaren funtzionamenduak gogobetetzen ez dituen herritarren gehiengoak (% 74,8), gogobeteta daudenen gutxiengoaren aurrean (% 23). Espainiako eta EBko batez bestekoaren azpitik jarraitzen dugu. Berriro ere, gogobeteta ez daudenen artean, abertzaleak (% 77) nahiz ez-abertzaleak (% 74) daude, eta gai honetan hurbil daude bi taldeen pertzepzioak. Demokraziarekiko gogobetetze ezaren sentimendu hori hautesleria ia guztiek partekatzen dute (C's-ren % 50etik EHBren % 90,7ra) --- ikus 6. grafikoa ---.

ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN BABESA BERRESKURATU DA, 1978AN LORTUTAKOA GAINDITUTA


Gaur berriro konstituzioari buruzko erreferendum bat egingo balitz, BAIETZAK (% 34,8) gora egingo luke (+10,5 puntu) eta ezetzari (% 24,3) aurre hartuko lioke berriro; horrek azken urteetako krisiaren aurreko egoerara eramango gintuzke eta, batez ere, 1978ko konstituzioa erreferendumerara lortutako mailara. Aldeko iritzia gehiago ematen da ez-abertzaleen artean (% 41), baina lau abertzaleetatik batek in-guruk partekatzen dute (% 28). Bestalde, boto negatiboak, orain dela hogeita hamar urtekoa baino altuagoa bada ere, nabarmen egin du atzera (-10 puntu azken urtean), bai abertzaleen (% 34), bai ez-abertzaleen artean (% 17). Aurreko hauteskunde au-tonomikoen hautesleriari erreparatua, baiezkoaren aldekoen artean, popularrak (% 81,6), sozialistak (% 53,4), C's-koak (% 75) eta PNVkoak (% 41,4) dira nagusi; ostera, ezezko botoa soilik nagusitzen da EHBren (% 49,3) boto emaileen artean, eta Elkarrekin Podemos zatituta dago baiezkoen (% 28,7) eta ezezkoen (% 29,3) artean --- ikus 7. grafikoa ---.

1. Grafikoa: EUSKALDUNEN EGOERA PERTSONALAREN BILAKAERA, 1993-2018




2. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA EKONOMIKOAREN BALORAZIOA

ESPAINAKOAKO




EUSKADIKOAKO




3. Grafikoa: KRISI EKONOMIKOAREN ERAGIN PERTSONALA

Araba= 18% (-11)
Gipuzkoa= 16% (-1)
Bizkaia= 17% (=)




Araba= 35% (=)
Gipuzkoa= 42% (=)
Bizkaia= 41% (-2)


4. Grafikoa: EUSKALDUNEN HIRU KEZKA NAGUSIAK (ERANTZUN ANIZTASUNAREN BATURA)




5. Grafikoa: POLITIKAZ HITZ EGITEKO ASKATASUNA



6. Grafikoa: GOGOBETETZE MAILA GURE DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUJAREKIKO



7. Grafikoa: ESPAINIAKO KONSTITUIZIOARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKAERA, 1978 ETA 2018 ARTEAN*



* Bilakaera sektorialak oraingo bozadari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2018ko Maiatza)

III. Atala

Politikarekiko interesik eza eta desafekzioa orokortu dira, eta gorako joera dute

Espainiako egoerari buruzko ezkortasuna goi-goian dago berriro. Bien bitartean, euskal politikari buruzko balorazio ona eten, eta eszeptizismoa da nagusi.

Urkullu lehendakariak eta haren gobernuak gainditu dute, aurreko balorazioa mantenduta.

Soilik PNK lortu du saldo positiboari eustea, herritarrek euskal alderdiei emandako balorazioan, eta PP da bere boto emaileek gutxien baloratzen dutena.

Pedro Sánchezen gobernu sozialista euskal gizartearen gutxiengo bat bakarrik ari da konbentzitzen, baina balorazioan M. Rajoyren gobernuaren gainetik dago.

Urkullu lehendakaria da gainditzetik gertu dagoen bakarra.

POLITIKAREKIKO INTERESIK EZA ETA DESAFEKZIOA OROKORTU DIRA, ETA GORAKO JOERA DUTE

Azken bi urteetan, politikarekiko interesak -4 puntu egin du atzera, gutxiengoena izaten jarraitzen du, eta hiru herritarretik bat baino pixka batek gehiagok eusten diote (% 34,3); horien aurrean, ia bi herenek (% 65,5) interes gutxi edo batere interesik ez dutela adierazten dute. Abertzaleek interes apur bat handiagoa dute (% 39,9) ez-abertzaleek baino (% 30,2). Halere, deigarria da euskal politikarekiko interesa (% 40,2) Espainiakoarena (% 30,9) baino handiagoa izatea, batez ere, abertzaleen artean (% 50,8 eta % 34,5 hurrenez hurren); izan ere, ez-abertzaleen interesik eza maila berean dago bietan (% 67,7 eta % 71,3 hurrenez hurren) -- ikus 8. grafikoa --.

Zalantzarik gabe, demokrazia sistema honekiko haserrea eta ezkortasun politikoa estu lotuta daude gizartean nagusi den desafekzio politikoarekin. Hala, lau urte igaro ondoren, euskal iritzi publikoaren zati oso handi baten politikarekiko urruntze sentimendua -negatiboa, zenbait kasutan- areagotu egin da (+10 puntu azken bi urteetan). Soilik gutxiengo batek erakusten du politikarekiko entusiasmoa (% 0,3), konpromisoa (% 4,4) edo, besterik gabe, interesa (% 10,3); haatik, gainerakoek (% 84,5) axolagabetasun sentimenduak (% 13,2), asperdura (% 14,9), mesfidantza (% 43,3) eta haserrea (% 13,1) adierazi dute, eta guztiz negatiboak diren azken hiru horiek nagusi dira (% 71,3), baita egonkorrenak ere.

ESPAINIAKO EGOERARI BURUZKO EZKORTASUNA GOI-GOIAN DAGO BERRIRO. BIEN BITARTEAN, EUSKAL POLITIKARI BURUZKO BALORAZIO ONA ETEN, ETA ESZEPTIZISMOA DA NAGUSI

Espainiako egoera politikoak sortutako ezkortasuna oso handia da oraindik (% 72,7), nahiz eta -15 puntu jaitsi den orain dela bi urteko errekorrekin alderatuta. Ia ez dago baikorrik (% 3,1), eta hamarretik bi baino apur bat gehiago eszeptikoak dira (% 21,3). Aitzitik, euskal politikari buruzko balorazioan, haren hobekuntza joera eten bada ere (-3 puntu azken urtean), baikorrak gehiago dira (% 29,9) ezkorrak baino (% 19,5), seihilekoetan izandako aurrerapen eta atzerapen korrelatiboen ondoren, zeinek 10 puntura igo baitute bi taldeen arteko arrakala. Gainerakoan, kasu honetan, eszeptizismoa indartu da (+5 puntu) gehiengoaren posizio gisa (% 47,8). Abertzaleak eta ez-abertzaleak bat datoz berriro Espainiako egoera politikoari buruz nagusi den ezkortasunean (% 73,5 eta % 72, hurrenez hurren), baita oraingoan euskal egoera politikoari buruzko eszeptizismoan ere (% 50,7 eta % 45,6 hurrenez hurren) --- ikus 9. grafikoa ---.

URKULLU LEHENDAKARIAK ETA HAREN GOBERNUAK GAINDITU DUTE, AURREKO BALORAZIOA MANTENDUTA

Euskal gizarteak eman dien batez besteko notarekin (5,3) gainditua lortu dute, hamarren bat galduta azken seihilekoan, baina 2ko errentari eusten diote orain dela

urtebeteko notan, aurreko joera positiboa inbertituta. Batez besteko kalifikazio hori gaintitzen dute PNVren (6,4) eta PSE-EEren (5,6) boto emaileek, eta oso gertu gertzen dira PPrenak (5,2); ostera, Elkarrekin Podemosen (4,8), C's-ren (4,7) eta EHBren (4,5) hautesleriak gaintituaren azpitik geratu dira. Halaber, deigarria da ia nota bera lortzen dutela ez-abertzaleen (5,1) eta abertzaleen (5,5) artean. Era berean, gehiago dira gobernuaren kudeaketa gaintitutzat ematen duten euskaldunak (% 74), hura ez-gaintitutzat ematen dutenak baino (% 23), atzerapen (-1 puntu) eta aurrerapen (+ 3 puntu ez-gaintituenak) eta atzerapen txikiak izanda, hurrenez hurren, azken seihilekoan --- ikus 10. grafikoa ---.

SOILIK PNVK LORTU DU SALDO POSITIBOARI EUSTEA, HERRITARREK EUSKAL ALDERDIEI EMANDAKO BALORAZIOAN, ETA PP DA BERE BOTO EMAILEEK GUTXIEN BALORATZEN DUTENA

Euskal legebiltzarreko alderdiek azken hilabeteetan izan duten ibilbide politikoa baloratzeko eskatu diegu elkarriketatuei, eta soilik PNVk lortu du berriro saldo positibo bat (+12 puntu), iritzi positiboan (% 36) eta negatiboan (% 23,9) artean. Aitzitik, gainerako alderdi politikoen saldoa negatiboa da. EHBren -13 puntuko gutxienezkotik (+% 21,5 eta -% 33,6) PPren -73 puntuko gehienekora, tartean egonda Elkarrekin Podemosen -21 puntuak (+ 16,8 eta -37,7), PSE-EEren -41ak (+% 9 eta -% 50) eta C's-ren -63ak (+% 2,8 eta -% 65,8). Seihilekoan egonkortasun handia eman da, aldaketa txiki batzuekin. Bestetik, alderdietako boto emaileen balorazio positiboak honako hauek dira, txikienetik handienera: PP % 21,1, PSE-EE % 33,3, EP % 49, EHB % 65,5, C's % 67 eta, gehiena PNV % 71 --- ikus 11. grafikoa ---.

PEDRO SÁNCHEZEN GOBERNU SOZIALISTA EUSKAL GIZARTEAREN GUTXIENGO BAT BAKARRIK ARI DA KONBENTZITZEN, BAINA BALORAZIOAN M. RAJOYREN GOBERNUAREN GAINETIK DAGO


Euskal iritzi publikoak Mariano Rajoyren gobernu popularrari buruz orain dela urtebete zuen iritzian hautemandako erabateko mesfidantzak kontrastatzen du gizarte horrek berak Pedro Sánchezen gobernuaren kudeaketari buruz duen iritzi ez hain kritikoarekin. Aurreko gaitzespen indizea % 90 ingurukoa zen, eta oraingoan erdira baino gehiagora murriztu da (% 36,6); bien bitartean, aldeko jarrera apalak (% 5 ingurukoa) hiruz bideratuko dira (% 18,3). Une honetan, eszeptizismoa nagusi da 10 euskaldunetatik ia lautan (% 38,1), mozio zentsuraren ondorioz eraturako Sánchezen gobernuaren kudeaketa epaitzeko unean. Ostera, balorazio positiboa ez da nagusi ezta boto emaile sozialisten artean ere (% 42,6), non eszeptizismoa da nagusi (% 47,1), eta berdina gertatzen da PNVren (% 42) edo EPren (% 39,5) boto emaileen artean; C's-ren (% 100), PPren (% 78,3) eta EHBren (% 48) boto emaileak dira kritikoak --- ikus 12. grafikoa ---.

Lider politikoaren balorazioetan seihilekoan izandako okerrerako joeran, bat eta lau hamarren arteko atzerapenak eman dira, eta salbuespen bakarrak izan dira sei hamarren igo den Pedro Sánchez eta bi hamarren igo den Pablo Casado (M. Rajoyren balorazioarekin alderatuta). Apur bat aldatu da aurreko seihilekoen ordena, eta bere horretan geratu dira batzuen eta besteen arteko ezagutza mailen arteko aldeak. Ezagutza maila gorena duten liderren talde bat dugu balorazioen % 80 gainditzen dutenak (P. Sánchez, I. Urkullu, P. Iglesias, A. Otegi, A. Rivera eta P. Casado), bigarren talde baten ezagutza maila % 60-80 artean kokatzen da (A. Garzón, A. Alonso, I. Mendía eta A. Ortúzar), eta azkenik, batzuk ez dira % 35era iristen (L. Martínez eta A. Rodríguez). Beste behin, Urkullu lehendakariak lortu du lehen posizioa eta gaindizetik gertu dago (4,8, -1 hamarren bat eta % 93ko ezagutza maila); haren atzetik daude A. Ortuzar (4,3, -2 hamarren eta % 65eko ezagutza maila), P. Iglesias (4, -1 hamarren eta % 92ko ezagutza maila), A. Garzon (3,9, -1 hamarren eta % 72ko ezagutza maila); hauen atzetik, berdinduta daude A. Otegi (3,8, -1 hamarren eta % 87ko ezagutza maila) eta Pedro Sanchez (3,8, +6 hamarren eta % 93ko ezagutza maila), I. Mendia (3,7, -2 hamarren eta % 65eko ezagutza maila), L. Martínez (3,6, -3 hamarren eta % 34ko ezagutza maila) eta A. Rodríguez (3,5, -4 hamarren eta % 28ko ezagutza maila); eta, taularen amaieran zentro-eskuineko liderrak daude A. Alonso (1,9, -2 hamarren eta % 66ko ezagutza maila), A. Rivera (1,6, -1 hamarren eta % 88ko ezagutza maila) eta P. Casado (1,5, M. Rajoy baino bi hamarren gehiago eta % 84ko ezagutza maila). --- ikus 13. grafikoa ---


Bestalde, bere boto emaileen balorazio onena Urkullu lehendakariak du (6,4), eta bere boto emaileen balorazio txarrena, berriz, L. Martinezek (4,9), gainerako liderrak bi horien artean kokatuta.

Azkenik, puntuazio hauek onarpen indizearekin osatzen baditugu (puntuatzean gutxienez gainditu bat ematen dutenen %), Urkullu lehendakaria da aurrena (% 57, eta seihilekoan aldaketarik izan gabe). Berritoki ere, gaindizite nota gehien lortzen dituen bakarra da. Haren atzetik daude: P. Iglesias (% 43 eta aldaketarik gabe), P. Sánchez (% 40 eta +14 puntuko igoera), A. Otegi (% 38 eta aldaketarik gabe), Ortuzar (% 35 eta -1 puntu), A. Garzon (% 33 eta +5 puntu). I. Mendía (% 25 eta -2 puntu), L. Martínez (% 13 eta -1 puntu), A. Rivera (% 11 eta -1 puntu), A. Rodríguez (% 11 eta aldaketarik gabe), eta azken lekuan A. Alonso (% 10 eta -1 puntu) eta P. Casado (% 10) lider popularrak daude. --- ikus 14. grafikoa ---.


8. Grafikoa: POLITIKAREKIKO INTERESA ETA SENTIMENDUAK




9. Grafikoa: EUSKADIKO ETA ESPAINIAKO EGOERA POLITIKOAREN BALORAZIOA




11. Grafikoa: AZKEN HILABETEETAKO ALDERDI POLITIKOEN IBLIBIDEAREN BALORAZIOA




12. Grafikoa: ESPAINIAKO GOBERNUAREN BALORAZIOA



13. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN BALORAZIOA EUSKADIN



14. Grafikoa: LIDER POLITIKOEN ONARPEN INDIZEA EUSKADIN



IV. Atala

Ez-abertzaletasunaren sentimenduaren nagusitasuna indartu da euskal gizartean, zatiketa kroniko baten erdian.

Euskal eta espainiar identitateen arteko bateragarritasunak nagusi izaten jarraitzen du, euskalduntasuna argi nabarmenduz.

Autogobernurako lehentasunek zatiturik jarraitzen dute autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean.

Gehiengo handi batek gogobeteta jarraitzen du Estatutuarekin.

Gernikako Estatutuaren aldeko gehiengoaren babes esplizituak berdinu egin du berriro 1979ko erreferendumean lortutakoa.

Autogobernuaren erreformari buruzko eztabaidak ez du interesik piztu euskal herritar gehienek artean.

Euskal gizartea zatituta dago, bere estatus nazionalaren aitortzari dagokionez, eta gutxiengo bat bakarrik dago aitortza horren inplikazioa estatu independente bat sortzeko eskubidea izatearen alde.

Independentzia nahiak gutxiengoa izaten jarraitzen du, ziurgabetasun etorkizun batean.

Balizko erreferendum batean, ezezkoa baiezkoari gailenduko litzaioke 7 puntuko aldeaz, eta aldeare handiagoa izango litzateke, independentziak EBTik irtetea eta Espainiako merkatua galtzea eragingo balu.

Autodeterminazio erreferendum bat eginez gero, gehiengoak defendatzen du erabaki eremuak Euskadi osoa izan behar duela eta ez haren lurraldeak.

EZ-ABERTZALETASUNAREN SENTIMENDUAREN NAGUSITASUNA INDARTU DA EUSKAL GIZARTEAN, ZATIKETA KRONIKO BATEN ERDIAN

Abertzaleen (% 42,2) eta ez-abertzaleen (% 53,7) arteko zatiketa kroniko baten erdian, bi taldeen arteko aldeak areagotu egin dira berriro (11,5 puntu), bigarren seihilekoz segidan eta orain dela urtebeteko berdinketaren ondoren; hala, lehenengoek -3 puntuko atzerapena izan dute seihilekoan, eta bigarrenengoek, +3 puntuko aurrerapen korrelatiboa. Probintzien arabera, sentimendu ez-abertzalea nagusi da denetan, Gipuzkoako gutxienez (% 48,7) Arabako gehiengora (% 60), tartean Bizkaiko % 55 egonda. Hautesleriei erreparatuta, ez-abertzale definitzen direnen artean, gutxienezko abstentzionisten % 66,3 da, eta gehiengoa, C's-ren boto emaileen % 100a. Aldiz, sentimendu abertzalea nagusi den hauteslerietan, gutxienezko PNVen dago (% 62,6), eta gehiengoa, berriz, EHBren boto emaileen artean (% 76,3) --- ikus 15. grafikoa ---.

EUSKAL ETA ESPAINIAR IDENTITATEEN ARTEKO BATERAGARRITASUNAK NAGUSI IZATEN JARRAITZEN DU, EUSKALDUNTASUNA ARGI NABARMENDUZ

Seihilekoan apur bat atzera eginda (-3 puntu), herritar gehienek -hiru euskaldunetik ia bik (% 61,6)- euskal eta espainiar identitateak bateragarriak direla adierazi dute. Bateragarritasun horren barnean, euskal-espainiar dualtasun orekatua da nagusi (% 36,4 eta -3 puntu), eta horri jada ezaguna den euskaltasun sentimendua gehitu behar zaio (% 22,9), zeina sentimendu espainolistaren (% 2,3) oso gaitetik baitago. Bestetik, muturreko espainolismoak gutxienezko izaten jarraitzen du (% 3,2), eta hiru euskaldunetatik batek baino gutxiagok du beren burua soilik euskalduntzat (% 30,3, seihilekoan +2 puntu indartuta) --- ikus 16. grafikoa ---.

Euskaldun eta espainiar sentitzen direnen identitateen bateragarritasunari dagokionez, EHBren boto emaileen % 26,8ren eta PSE-EEren boto emaileen % 84,2ren artean kokatzen da, eta tarte horretan daude C's (% 50), PNV (% 65,3), PP (% 67,6), EP (% 73,9) eta abstentzionistak (% 77,3). Nolanahi ere, euskalduntasuna argi nabarmentzen da abertzaleen eta Elkarrekin Podemosen boto emaileen artean, eta orekatuagoa da, aldiz, autonomisten artean. Soilik euskaldun sentitzen direnen eskubotasunak nagusi izaten jarraitzen du EHBren boto emaileen artean (% 70,7), eta garrantzitsua da PNVen (% 30,2). Ostera, espainiar sentimendua da nagusi sozialisten, C's-en eta, batez ere, alderdi popularraren (% 27) boto emaileen artean.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITURIK JARRAITZEN DU AUTONOMISMOAREN, FEDERALISMOAREN ETA INDEPENDENTISMOAREN ARTEAN

Estatuaren lurraldea antolatzeko formari dagokionez seihileko eta urte arteko egonkortasuna handia den testuinguru batean, euskaldunak zatiturik daude oraindik

autonomismoaren, federalismoaren eta independentismoaren artean. Euskal herritar gehienak egungo formula autonomikoaren (% 35,7) eta balizko federalismo baten artean (% 28,4) kokatzen dira. Gaur egungo eredu autonomikoa aukera nagusia da oraindik popularren (% 57,9) eta sozialisten artean (% 51,7), eta, neurri apalagoan, jeltzaleen (% 47,7) eta abstentzionisten (% 46,6) artean, eta, oro har, ez-abertzaleen multzoan (% 43,2). Autogobernua bide federaletik garatzeko aukeraren aldekoak dira Elkarrekin Podemosen (% 50) boto emaileak, eta, neurri apalagoan, sozialistak (% 36,8), abstentzionistak (% 20,9) eta PNV (% 33,8). Aukera horrek babes berdintsua du abertzaleen eta ez-abertzaleen artean (laurden bat gutxi gorabehera). Nolanahi ere, bi formula integratzaile horien baturak gehiago argia izaten jarraitzen du (% 64,1), hiru euskal herritarretatik bi horien alde baitaude --- ikus 17. grafikoa ---.

Formula dezentralizatzaile eta integratzaile horien aurrean, independentismoak --formula autodeterministaren edo konfederalaren bidez-- euskal herritarren laurdenaren (% 24,6) babesa izaten jarraitzen du, urte arteko egonkortasun handia erakutsita. Aukera hori EHBren boto emaileen gehiago zabal batek (% 74,3) babesten du, eta babes garrantzitsua du, oro har, abertzaleen artean (% 40); dena dela, gutxiengo bat dago horren alde PNVren (% 11,8) eta Elkarrekin Podemosen (% 22,2) boto emaileen artean. Beste muturrean, euskal herritarren % 5 zentralismoaren aldekoak dira, arbuizate edo lekukotasun adierazpen gisa, eta horren barruan, batez ere, popularren eta sozialisten boto emaileak daude, gero eta gutxiago bada ere, eta horiekin batera C's-en gutxiengo bat ere.

GEHIENGO HANDI BATEK NAHIKO GOGOBETETA JARRAITZEN DU ESTATUTUAREKIN, ETA AREAGOTU DAITEKEEN AUTOGOBERNURAKO TRESNA IZATEN JARRAITZEN DU GEHIENGOAREN USTEZ

Euskal herritarren gehiago kualifikatu batek --hiru laurdenek baino gehiagok-- (% 76,4) nahiko gogobeteta jarraitzen du estatutuarekin, eta, bien bitartean, bostetik ia bat (% 16,1) ez dago gogobeteta estatutuarekin, horren egonkortasuna erlatiboa izanik azken urtean. Edonola ere, estatutuak gogobetetzen dituenen artean zatiketa bat hautematen da nolabaiteko jarrera kritikoa dutenen (% 38,2) eta baikor direnen (% 38,2) artean, eta urte artekoan lehenengoak apur bat igo dira, bigarrenengoan kaltetan. Jarrera kritikoa dutenen artean, abertzaleak dira nagusi (% 42,8); aldiz, ez-abertzaleak erabat gogobeteta daude (% 44,1). Hautesleriei erreparatuta, jarrera kritikoa nagusi da EPren boto emaileen artean (% 45,2), eta, neurri apalagoan, jarrera kritikoa dute ere EHBren boto emaileak (% 40,8), abstentzionistek (% 44,5) eta PNVren boto emaileak (% 37,6). Estatutuak EHBren hautesleria gogobetetzen du gutxien (% 44,2); eta gogobetetze maila handiena, berriz, sozialisten (% 57,5), popu-

larren (% 65,8), C's-en (% 66,7) eta PNVren (% 51,2) hauteslerietan ematen da, eta neurri apalagoan, EPen (% 33,8) --- ikus 18. grafikoa ---.

Estatutuarekiko deserosotasun erlatiboari eta gaitzespenari ñabardura handiak egin behar zaizkie berriro, herritarrei egungo autogobernu estatusaren alternatibak zein diren galdetzen zaienean. Gutxi gorabehera bostetik batek ez aldatzeko jarrerari eusten dio (% 21,1), horren ia bikoitzak falta diren eskumenak transferituta nahikoa luke (% 32,8), eta gutxiago dira autogobernua erreformatu eta areagotzearen alde daudenak (% 24,8); aldiz, oso gutxi dira oraindik hausturaren eta prozesu subiranistaren alde garbi dauden herritarrak (% 11,1), azken urtean aldaketa handirik izan gabe. Lehenengo bi aukeren aldekoa aukera hauetan biltzen dira: C's- (% 75), alderdi popularra (% 81), alderdi sozialista (% 70), PNV (% 70), EP (% 50), abstentzionistak (% 56) eta ez-abertzaleak (% 61), oro har, hainbat ñabardura eginda (autogobernua indartzearen aldeko jarrera nagusi da jeltzaleen, sozialisten eta EPren artean). EHBren boto emaileak zatituta daude subiranotasunaren aukeraren (% 41) eta autogobernua handitzearen (% 35) artean, eta bi aukera horietan biltzen dira abertzaleen erdiak (% 50), zeinak zatituta daude azken bi aukera horien eta lehenengoan (% 47) artean.

GERNIKAKO ESTATUTUAREN ALDEKO GEHIENGOAREN BABES ESPLIZITUAK BERTINDU EGIN DU 1979KO ERREFERENDUMEAN LORTUTAKOA

39 urte igaro direnean Gernikako Estatutuaren onarpena berresteko erreferenduma egin zenetik, gaur erreferenduma berriro egingo balitz, baiezkoak (% 51) 1979an baiezkoa bozkatu zuen (% 53) erroldaren gehiengoa eskuratuko luke, azken lau urteetan ia etenik gabeko gorakada izan ondoren (+21 puntu). Aldeko iritzi hori ia berdina suma daiteke abertzaleen (% 54,2) eta ez-abertzaleen (% 49,5) artean. Aldiz, orain dela 30 urteko ezezko botoak (% 3) gora egingo luke (% 6,7 eta -14 puntuko atzerapena urtean) garai hartan izandako abstentzioaren kargura (1979an abstentzioa % 41 izan zen). Zatiketa hautesleria guztien ezaugarria da, baina baiezkoa nagusi da guztietan, EHBrean barne (% 41,3), hirugarren seihilekoz jarraian; azken horretan, zatiketa besteetan baino handiagoa bada ere, ezetzak gero eta babes gutxiago du (% 15,5) --- ikus 19. grafikoa ---.

AUTOGOBERNUAREN ERREFORMARI BURUZKO EZTABAIDAK EZ DU INTERESIK PIZTU EUSKAL HERRITAR GEHIENEN ARTEAN

Hilabeteak daramatzagu Eusko Legebiltzarreko taldeek autogobernuaren erreformari buruz aurkeztu dituzten proposamenak eztabaidatzen, helburua izanik amaierako proposamen bat aurkeztea legebiltzarrean, legealdiari geratzen zaion denboran. Alde

horretatik, elkarrizketatuei galdetu diegu zenbaterainoko interesa duten eztabaida horretan. Datu deigarri gisa, ia lautik hiruk (% 74,1) erantzun dute interes gutxi dutela (% 33,4) edo batere ez (% 40,7), eta laurdena baino gutxiago dira (% 22,7) eztabaidarekiko interes handiagoa edo txikiagoa erakutsi dutenak. Are gehiago, autogobernuaren eztabaidak abertzaleen artean ez du gehiengoaren interesik pizten (% 34), eta EHBren boto emaileak dira (% 38,2) interes handiena dutenak; neurri txikiagoan, PNVren boto emaileak (% 26,2) eta EPrenak (% 25,4). Nolanahi ere, gehiengoaren interesik eza nagusi da abertzaleen (% 62,5) eta ez-abertzaleen (% 83,1) artean, eta hautesleria guztietan (EHBren % 57tik C's-ren % 100era) ---- ikus 20. grafikoa ----.

EUSKAL GIZARTEA ZAITUTA DAGO BERE ESTATUS NAZIONALAREN AITORTZARI DAGOKIONEZ, ETA GUTXIENGO BAT BAKARRIK DAGO AITORTZA HORREN INPLIKAZIOA ESTATU INDEPENDENTE BAT SORITZEKO ESKUBIDEA IZATEAREN ALDE

Eztabaidatutako gaietako bat da Euskadiri nazio estatusa onartu behar zaion ala ez, eta, jakina, aitortza horrek ekarriko lituzkeen ondorio politikoak. Hasteko, elkarrizketatuei galdetu diegu zer mailataraino dauden ados nazio aitortzarekin, eta hiru multzotan erantzuten dute herritarrek: % 45,2 alde, % 37,7 aurka eta ia bostetik batek ez du erantzun (% 37,7). Berrito ere, agerian gelditu da aldekoak diren abertzaleen (% 68,4) eta aurka dauden ez-abertzaleen (% 52) arteko zatiketa, hauteslerien artean bezalaxe: aitortzaren aldekoak dira EHBren ia boto emaile guztiak (% 93,2) eta EPren boto emaileen gehiengo (% 51), eta aurkako iritzia dutenak dira nagusi C's-ren boto emaileen (% 100), sozialisten (% 70,8) eta popularren (% 84,2) artean; azkenik, PNV zatituta dago, aldekoen (% 39,5) eta aurkakoen (% 38,8) artean ---- ikus 21. grafikoa ---.

Aurreko galderan aitortzaren alde agertu den gehiengo estuari (% 45,2), galdetu diegu ea horrek estatu independente izateko eskubidea ekarri beharko lukeen edo nahikoa litzatekeen Espainia plurinazional batean jarraitzea, estatus politiko berezi batekin. Berrito ere, talde hau zatitu egiten da, eta gehienek uste badute ere (% 54,9) nazio aitortzak autodeterminazio eskubidea ekarri beharko lukeela, herena baino gehiago (% 34,8) estatu plurinazional batean jarraitzearekin konformatuko litzateke; hamarretik batek ez du erantzun (% 10,4). % 54,9 hori euskal herritarren laurdena baino zertxobait gutxiago da (% 24,75): EHBren boto emaileen % 77,1, EPren boto emaileen % 17,8, PNVren boto emaileen % 12,2 edo abertzaleen % 41,7.

INDEPENDENTZIA NAHIAK GUTXIENGOA IZATEN JARRAITZEN DU, ZIURGABETASUN ETORKIZUN BATEAN

Euskal autogobernuaren formula politikoa gorabehera, euskal herritarren laurdenek baino zertxobait gehiagok (% 28,8) independentzia lortzeko gogo handia dutela adierazten dute, kopuru hori oso egonkorra izanik urtetik urtera. Hori adierazi

dute EHBren boto emaileen gehiengo handi batek (% 84,9) eta abertzale gehienek (% 51,3), eta, maila apalagoan, PNVren boto emaileek (% 19,6). Datu horien aurrean, euskal gizartearen gehiengoak (% 61,3) dio independentzia lortzeko gogo gutxi duela (% 24,5) edo batere gogorik ez (% 36,8), batez ere ez-abertzaleek (% 75) eta alderdi autonomisten boto emaileek (hamarretik bederatzik baino gehiagok), baina baita PNVren boto emaileek (% 72), EPren boto emaileek (% 68) eta abstentzionistek (% 65) ere --- ikus 22. grafikoa ---.

Euskadi independente baten hipotesian, alde handiak ikus daitezke bizi baldintzen bilakaerari buruz euskal gizarteak dituen igurikapenetan: alde batean, hobeto biziko ginatekeela uste dutenak daude (% 25,1); bestean, guztiz kontrakoa pentsatzen dutenak eta okerrago egongo ginatekeela uste dutenak (% 32,7). Hirugarren talde batek uste du gauzak ez liratekeela aldatuko (% 19,9) edo ez daki zehazki zeren alde egin (% 13,9). Baikorrenak EHBren boto emaileak dira berriro (% 71,2), eta, oro har, abertzaleak (% 43,7). Azkenik, ezkorrenak dira popularrak (% 73,7), sozialistak (% 59,8), C's-ren boto emaileak (% 86) eta, oro har, ez-abertzaleak (% 45,4), baina baita ere abstentzionistak (% 37,7), PNV (% 35,8) eta, neurri txikiagoan, EP (% 27,4).

BALIZKO ERREFERENDUM BATEAN, EZEZKOA BAIEZKOARI GAILENDUKO LITZAIKOE 7 PUNTUKO ALDEAZ

Era berean, berriro ere galdetu diegu gure elkarrizketatuei zer egingo luketen bihar bertan Euskadiren independentziari buruzko erreferendum bat egingo balitz. Iritzi oso desberdinak bildu ditugu, eta iritzi horien bilakaera nabarmen bat hauteman ere bai. EZEZKOA, duela urtebete baino zertxobait hotzagoa, % 39ra heltzen da, -8 puntu atzera egin ondoren abstentziorantz urtetik urtera; aldiz, BAIEZKOA, erabakimen handiagoz hasieratik, euskal gizartearen herenaren azpitik mantentzen da (% 31,9), eta, ondorioz, duela lau urteko berdinketa tekniko 7 puntuko aldea bihurtu da ezezkoaren alde, nahiz eta urrun duela urtebeteko 17 puntuetatik. Gainera, % 15,6k diote abstenitu egingo liratekeela eta % 13k adierazi dute gaur gaurkoz ez dutela horri buruzko iritzirik. Abertzaleek eta ez-abertzaleek jarrera argiak dituzte: alde (% 53,9) eta kontra (% 55,9), hurrenez hurren. Baita hautesleriek ere: EHBren boto emaileen % 87,9 eta, neurri apalagoan, EPren % 25,6 eta PNVren % 21, baiezkoaren alde; eta EPren % 42,9ren eta PPren % 83,8ren artean, ezezkoaren alde (tartean, PNVren % 48,3, PSE-EEren % 74,7 eta abstentzionisten % 34,7 --- ikus 23. grafikoa ---).


Independentziaren aldekoei galdetu diegu zer neurritaraino eutsiko lioketen baiezkoari baldin eta horrek EBtik irtetea, Espainiako merkatuan atzera egitea edo Nafarroa eta Araba kanpoan gelditzea eragingo balu. Kasu guztietan, baiezkoa murriztu egingo litzateke % 26, % 23, % 18 eta % 14ra, hurrenez hurren. % 2-12 artean,

ezezkora joko lukete; beste % 4-7 artean, zalantzan egongo lirateke, eta horrek ia berdin eragingo luke EHBren, EPren eta PNVren hauteslerietan, nahiz eta era desberdinean kasu bakoitzean: EBtik irtetea, Espainiako merkatuan atzera egitea edo lurraldea zatitzea.


AUTODETERMINAZIO ERREFERENDUM BAT EGINEZ GERO, GEHIENGOAK DEFENDATZEN DU ERABAKI EREMUAK EUSKADI OSOA IZAN BEHAR DUELA ETA EZ HAREN LURRALDEAK

Kontuan izanik lurraldea zatitzeko arriskuarekiko kezka eta, aldi berean, foru lurraldeen eskubide historikoen konstituzio aitortzarekikoa, balizko autodeterminazio erreferendum baten aurrean jarri ditugu elkarrizketatuak, eta galdetu diegu nola gauzatu beharko litzatekeen Espainiaren parte izateko eskubide historikoa, erreferenduma lurraldeka eginez ala Euskadi bere osotasunean harturik, lurralderen bategen independentziaren aurka bozkatuko balu ere. Herritarren gehiengo handi baten arabera, erabakia euskal herritar guztien artean hartu beharko litzateke (% 67,8), eta ez lurraldeka (% 15,3), eta zeharkakotasun esanguratsu bat ikus daiteke lurralde guztietan (Bizkaia % 64,8, Araba % 65,5 eta Gipuzkoa % 73,7), abertzaleen artean (% 76,3), ez-abertzaleen artean (% 61,2) eta hautesleria guztietan (PPren % 34,2tik PNVren % 78,4ra) ---- ikus 24. grafikoa ----


15. Grafikoa: EUSKALDUNEN SENTIMENDU ABERTZALEA




16. Grafikoa: EUSKALDUNEN IDENTITATE NAZIONAL SUBJEKTIBOA




17. Grafikoa. ESTATU EREDUARI BURUZKO ALTERNATIBAK



18. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUAREKIKO GOGOBETASUNA ETA EGUNGO EGERA KONPONTZEKO ALTERNATIBAK




19. Grafikoa: AUTONOMIA ESTATUTUARI EMANDAKO BOTOAREN BILAKERA, 1979 ETA 2018 ARTEAN*




* Bilakaera sektorialak oraingo boladari egiteko erreferentzia aurrekoarekin alderatuta (2018ko Maiatza)

20. Grafikoa: EUSKAL AUTOGOBERNUAREN ERREFORMAREN EZTABAIDAK PIZTUTAKO INTERESA




21. Grafikoa: EUSKADIRI NAZIO ESTATUSA AITORTZEA ETA AITORTZA HORREK IZAN BEHARKO LITUZKEEN ONDORIOAK




22. Grafikoa: EUSKALDUNEN INDEPENDENTZIA NAHIAK ETA BIZI ITXAROPENAK INDEPENDENTZIAREN ONDOREN

INDEPENDENTZIA NAHIAK




BIZI ITXAROPENAK



23. Grafikoa: BOTOA INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINGO BALITZ, ETA BALEZKO BOTOARI EUSTEKO BALDINTZAK


BOTOA INDEPENDENTZIARI BURUZKO ERREFERENDUM BAT EGINGO BALITZ




PP=84% (-16)
PSE-EE=75% (-11)
PNV=48% (+6)
Podemos=43% (+7)
Abst.=35% (+2)

Aber.=18% (-1)
Ez aber.=56% (+2)

EUSKADI EBtik KANPO (32%)




EUSKADIK POSIZIOAK GALTZEN DITU ESPANIAKO EKONOMIAREKIKO (32%)




EHB=88% (+8)
Podemos=26% (-1)
Abst.=24% (=)
PNV=21% (-2)

Aber.=54% (+3)
Ez aber.=15% (=)


NAFARROA KANPOAN (32%)



ARABA KANPOAN (33%)



24. Grafikoa: ERABAKI EREMUA AUTODETERMINAZIO ERREFERENDUMA EGINGO BALITZ



U. Atala

Euskal gizarteak zatituta jarraitzen du ETAko presoak “politikotzat” bai ala ez hartzeko orduan.

Zatituta badago ere, euskal gizartearen gehiengoak ETAREN terrorismoaren amaieran lagunduko duten neurrien alde dago, espetxe, administrazio eta justizia arloan.

Adostasun zabala ETARI eta haren kideei gorazarre egiten dieten ekitaldiak eta zeinuak desagertzearekin.

Euskal gizartea ados dago ETAko presoak banan-banan hurbildu nahi dituen politikarekin eta arbiatu egiten du biktima talde batzuen aurkako jarrera.

Euskal gizarteak bere jarrera gogortu du terrorismo delituak dituzten presoek barkatzeari eta gizarteratzeari dagokienez.

EUSKAL GIZARTEAK ZATITUTA JARRAITZEN DU ETAKO PRESOK “POLITIKOTZAT” BAI ALA EZ HARTZEKO ORDUAN

Gure gizarteko gai eztabaidatsuenetako bat da terrorismo delituengatik kondenatu eta espetxeratu dituzten ETako presoak “politikotzat” hartzeari buruzkoa. Preso politikoak direla diote batez ere ezker abertzaleko sektoreek eta ETari lagundu edo haren ekintzak justifikatu dituztenek. Alde horretatik, bost urteren ondoren, berriro galdetu diegu euskal herritarrei ados dauden ala ez presoak politikotzat hartzea-ekin eta guztiz zatituta agertu dira berriro (% 40 alde eta % 40 aurka), duela bost urteko zatiketa bera agerian utziz. Abertzaleen artean, gehiengoa alde dago (% 58,3), eta ez-abertzaleek aurkako iritzia dute, proportzio berean (% 55,4). Hauteslerien arabera, soilik EHB da aldekoa nagusiki (% 80); aldiz, C’s (% 100), PP (% 81,6) eta sozialistak (% 65,9) aurka daude; PNV aurkakoagoa da (% 42,9) aldekoa baino (% 36,9), eta EP, alderantziz (% 39,7 eta % 42,3, hurrenez hurren) --- ikus 25. grafikoa ---.

ZATITUTA BADAGO ERE, EUSKAL GIZARTEAREN GEHIENGOA ETAREN TERRORISMOAREN AMAIERAN LAGUNDUKO DUTEN NEURRIEN ALDE DAGO, ESPETXE, ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA ARLOAN

Duela sei urte, ETaren bortizkeria amaituta, giroa baretzeko neurri batzuk planteatu ziren, Gobernuak eta sistema demokratikoak terrorismoaren amaiera sendotzeko har zitzaketenak, baldin eta armagabetzea eta indarkeriaren amaiera egiazkoak zi-rela egiaztatzen bazen eta, ETA oraindik hor egon arren, pertsonen eta ondasunen aurkako inolako ekintzarik gertatzen ez bazen. Duela urtebete, armagabetze prozesua martxan, berriro galdetu genien euskal herritarrei ordurako jada hainbat eragile proposatzen ari ziren neurriei eta beste neurri berri batzuei buruz. Orain, behin erakunde terrorista desagertuta, berriro heldu diegu gaiari. Hortaz: *ETako presoiei banan-banan gizarteratzen laguntzea* da babes eta adostasun handiena dituen neurria (% 66, % 15en aurrean), eta +9 puntuko igoera izan du sei urtean. Hauteslerien arabera: PPn (% 51) eta C’s-en (% 50) aurkakoak dira nagusi; aldiz, aldekoak dira abertzaleak (% 78), ez-abertzaleak (% 57) eta gainerako hautesleriak, abstentzionisten minimotik (% 57) EHBren maximora (% 87). *ETako presoan espetxe baldintzak hobetzea eta espetxe onurak banan-banan aplikatzea*-ri dagokionez, aldeko iritzia ere da nagusi, nahiz eta neurri txikiagoan (% 55, % 18ren aurrean). Abertzaleak (% 71) eta haien hautesleriak daude neurri horren alde; aldiz, sozialistak eta abstentzionistak zatituta daude, eta PP eta C’s, aurka. *Ihes egindako ETako kideak itzultzea*-k ere gehiengoaren onespina lortzen du (% 51, % 19ren aurrean), eta aurreko banaketa bera ikus daiteke, babesak zertxobait behera egiten badu ere. Azkenik, *Amnistia ETako*

presoentzat proposatzen duen neurriari dagokionez, gehiengoaren aurkakotasuna du (% 48, % 26ren aurrean), eta soilik daude horren alde EHBren boto emaileak (% 63). Gainerako hautesleria guztiak aurka daude: EPren % 53tik PPren % 84ra) --- ikus 26. grafikoa ----.

ADOSTASUN ZABALA ETARI ETA HAREN KIDEEI GORAZARRE EGITEN DIETEN EKITALDIAK ETA ZEINUK DESAGERTZEAREKIN

Euskal gizartearen gehiengoak arbuiatzen duen iraganeko arrastoetako bat ETAREN eta haren presoen aldeko pintadak eta kartelak eta preso ohiei eginiko harrerak eta omenaldiak dira. Alde horretatik, urtebete luze igaro ondoren, berriro galdetu diogu horri buruz euskal gizarteari. Hirutik bi baino gehiagoren ustez (% 67,8), desagertu behar dute ETA eta presoak goratzen dituzten pintadek eta kartelek; aldiz, bostetik batek baino gutxiagok aurkakoa uste du (% 18,8). Aldeko iritzia nagusi da abertzaleen artean (% 56,1) eta ez-abertzaleen artean (% 77,5), eta hautesleria guztietan, guztiz zatituta dauden EHBren boto emaileen artean izan ezik --- ikus 27. grafikoa ---.

Antzekoa gertatzen da ETAKO preso ohiei eginiko harrera eta omenaldi publikoekin. Gehiengoak aurka dago, adiskidetzaren kalterako delakoan (% 58,1), eta soilik gutxiengo batek ditu beharrezkotzat (% 15,9). Berriro, hautesleria guztiak bat datoz, zatituta dagoen EHB izan ezik: % 44,2 alde eta % 20,9 aurka.

EUSKAL GIZARTEA ADOS DAGO ETAKO PRESOK BANAN-BANAN HURBILDU NAHI DITUEN POLITIKAREKIN ETA ARBUIATU EGITEN DU BIKTIMA TALDE BATZUEN AURKAKO JARRERA

Behin ETA desagertuta, bultzada eman zaio berriro Barne Ministerioak presoak banan-banan Euskal Herriko edo inguruko lurraldeetako espetxeetara hurbiltzeko martxan jarritako politikari. Hori horrela, elkarrizketatuei galdetu diegu zer mailataraino dauden ados neurri horiekin, eta gehiengo handi bat, ia lautik hiru, alde agertu da (% 73,8); aldiz, hamarretik bat aurkakoa da (% 9,9). Babesa oso zabaldua dago abertzaleen (% 86,6) eta ez-abertzaleen (% 62,9) artean, eta ia hautesleria guztietan (abstentzionisten % 63,4tik EHBren % 91,6ra). Soilik PPn (% 43,2) eta C'S-en (% 50) dira aurkakoak nagusi ---- ikus 28. grafikoa ----.

Biktima talde batzuek ez dute begi onez ikusten presoen hurbilketa, eta aurka edo mesfidati agertu dira. Hori dela-eta, elkarrizketatuei galdetu diegu zer neurritaraino dauden ados biktimen aurkakotasunarekin, eta gehiengoak ez dago ados (% 56,7), biktimen jarreraren aldekoa den gutxiengo txiki bat –bostetik bat– izan ezik (% 18,1).

Biktimen jarrerarekiko desadostasun handiena abertzaleen artean (% 74,3) eta haien hauteslerietan dago (PNVren % 57,5etik EHBren % 84ra), eta desadostasuna txikia da ez-abertzaleen artean (% 42,6), zaituago daudenak: abstentzionisten % 45,2 edo sozialisten % 47,7 aurka; PPren boto emaileen % 55,2 eta C's-ren boto emaileen % 50 alde.

EUSKAL GIZARTEAK BERE JARRERA GOGORTU DU TERRORISMO DELITUAK DITUZTEN PRESOEI BARKATZEARI ETA GIZARATERATZEARI DAGOKIENEZ


Duela urtebeteko joera aldaketa esanguratsuaren eta aurreko sei hilekoaren egonkortasunaren ondoren, sei hileko honetan, beherantz doan gutxiengo izaten jarraitzen du (% 37,8 eta -8 puntu azken sei hilekoan) damua erakutsi eta armak uzteko erabakia adierazten duten terroristei gizarteratze neurriak eskaintzearen alde dagoen herritar multzoak. Horien aurrean, ia hirutik batek (% 31,4 eta +10 puntu azken sei hilekoan) uste du neurri horiek izan behar dutela soil-soilik hilketa deliturik ez dituztenentzat; aldiz, ia bostetik bat (% 19,5 eta -14 puntu azken urtean) ez dago prest barkatzeko, eta uste du batzuek nahiz besteek zigorra osorik bete behar dutela ---- ikus 29. grafikoa ----.

Abertzaleen artean, behera egin dute baldintzarik gabeko barkamenaren aldekoek (% 51,2), eta ez-abertzaleek zatituta jarraitzen dute. EHBren boto emaileei (% 62,8) batu egin zaie orain EPren boto emaileen gehiengoa (% 43,9), eta PNV zatituta dago baldintzarik gabeko barkamenaren gaian (% 34,3). C's-ren (% 66,7) eta PPren (% 52,6) hauteslerien gehiengoa zigorra osorik betetzearen aldekoa da; aldiz, sozialistak eta jeltzaleak askoz zaituago daude, baina nahiago dute hilketa deliturik ez edukitzearen baldintza ipintzea.

25. Grafikoa: ADOSTASUN MAILA ETAKO PRESOKA POLITIKOTZAT HARTZEAREN

PP= 82% (-2)
PSE-EE= 66% (-5)
Podemos= 40% (-7)
PNV= 43% (-3)
Abst.= 43% (-1)

Aber.= 21% (-8)
Ez aber.= 55% (-3)



EHB= 80% (-2)
Podemos= 42%
PNV= 37% (+2)
Abst.=34% (+2)

Aber.= 58% (=)
Ez aber.= 26% (-2)

26. Grafikoa: TERRORISMOAREN AMAIERAKO ZENBAIT JARRERAREKIKO ADOSTASUN/DESADOSTASUNA


ETAko presoen banakako birgizarteratzeetan laguntzea



ETAko presoen espetxe baldintzak hobetzea eta espetxe onurak banan-banan aplikatzea



ETAko aktibista inhesiarien itzultzea




Amnistia ETAko presoentzat



ADOS EZ ADOS TA EZ DESADOS DESADOS ED/EE

PINTADAK


EHB= 41% (+3)
Podemos=21% (+9)



PSE-EE= 91% (-1)
PP= 90% (-8)
PNV= 77% (-9)
Podemos=63% (-20)
EHB= 37% (-12)


OMENALDIAK

EHB= 44%
Podemos=17%





PP= 90%
PSE-EE= 78%
PNV= 71%
Podemos=58%
EHB= 21%

PRESOAK HURBILTZEA



BIKTIMEN AURKAKOTASUNA





A series of horizontal dashed lines for writing, consisting of 20 lines spaced evenly down the page.